



Berorren Maiestatearen Gabonetako Mezua

2023ko abenduaren 24a

Gabon.

Gabon gau bakoitzean bezala, nire familiak eta nik aukeraz baliatu nahi dugu Gabon zoriontsuak eta asmo onak opatzeko. Ohitura oni eutsi nahi diot, aparteko aukera baita zuekin batera herrialdeko egungo egoerari eta aurrean ditugun erronkei buruz hausnarketa egiteko.

Espainiako herritar askok zailtasun ekonomiko eta sozial ugari dituzte, eta hori kezka handia da guztiontzat. Kezka hori bereziki nabarmena da enpleguari, osasungintzari, hezkuntzaren kalitateari eta oinarrizko zerbitzuen prezioari begiratu bat ematen diegunean. Are gehiago emakumearen aurkako indarkeriaz edo, gazteen kasuan, etxebizitzarako sarbideaz ari garenean.

Hori dela eta, alde batetik, gaurkoan zuekin hainbat hausnarketa zehatz egin nahi ditut, eta bestetik, gure bizitza kolektiboaren garapenarekin zerikusia duten beste gai askori buruz ere mintzatu nahi dut. Konstituzioaz eta Espainiaz, alegia.

Aurten gure konstituzioak 45 urte bete ditu. Bizitza demokratikoko urte hauetan, Asturiasko printzesak urriaren 31n zin egin zuen konstituzioa gure bizitza osoan gurekin egon da, etengabe. Eta hori, zalantzarik gabe, espainiarren arteko batasunaren eta bizikidetasunaren adibiderik hoberena da.

Ezin dugu ahaztu gure demokraziaren aktibo garrantzitsuenetariko bat bizikidetasuna dela, zalantzarik gabe; partekatzen ditugun sentimenduetan, ongizatearen bilaketa komunean eta guztion oparotasunean oinarritzen den bizikidetasuna.

Urrian Asturiasen adierazi nuen bezala (eta halaxe uste dut), egintza handiak erdiesteko batasuna, esfortzu kolektiboa eta jarrera solidarioa ezinbestekoak dira. Horrelaxe egintza horiek pertsonak berak gainditzen dituzte eta denboran zehar dira. Horrelaxe egiten dute aurrera herrialdeek.

Espanian herritar orok pentsatzeko, adierazteko eta ideiak defendatzeko eskubidea du, noski, askatasunez eta gainerakoak errespetatuz. Baina demokraziak oinarritzko akordio handiak behar ditu, partekatzen ditugun printzipioetan oinarritzen direnak eta zenbait belaunalditan lotu gaituztenak.

Eta sustrai historiko eta kultural sakonak dituen lotura horren euskarria, batez ere, demokraziaren bizikidetasuna zuzentzen duten balioak dira: askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.

Balio horiek batzen gaituztelarik, gure sistema demokratikoari sendotasuna eta iraunkortasuna ematen diote.

Eta horrelaxe definitzen eta ezartzen ditu gure konstituzioak, hots, gure historia hurbileko arrakasta politikorik handiena eta nazioartean sekula miretsi eta aintzatetsi den prozesuaren gailurra.

Hari esker, Espainiak demokrazia osoa eraiki eta sendotu zuen. Irekia, integratzailea, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa, azken urteotan gure bizikidetasuna bermatu duena eta hainbat krisialdi larri gainditzen lagundu diguna. Hori da gure historia konstituzional hurbilaren ageriko errealitatea.

Konstituzioari esker desakordioak gainditu ditugu, gure historian akats ugariaren arrazoi izan direnak, zauriak ireki dituztenak, adiskidetasuna hautsi dutenak eta pertsonak elkarren artean aldendu dituztenak. Beraz, desakordio horiek gainditzea izan zen gure erdiespen nagusia duela ia 5 hamarkada. Horregatik, guztiok eginbehar moral argia dugu: desakordio-haziaren agerpena saihetsi behar dugu. Ezin dugu onartu.

Bada konstituzioaren beste alderdi garrantzitsu bat, askotan hautematen ez duguna: Gure bizi-eredua, bizimodua eta bizitza ulertzeko modua bermatzen duena. Askatasunez adieraztea, heziketa jasotzea, enplegua izatea, gaixotasunen aurrean babestea, hori guztia ezinbestekoa da gure egunerokotasunean. Halaber, etxebizitzarako sarbidea, familia izatea, gizarte-laguntza jasotzea edo erretiro duina izatea... Konstituzioak eguneroko ekintza horiek guztiak (eta gauza askoz ere gehiago) sustatzen, bermatzen eta babesten ditu.

Hori dela eta, konstituzioa aldarrikatu nahi dut. Orainaren eta etorkizunaren balio demokratikoa delako, eta espainiarren bizitza konfiantzan, egonkortasunean eta segurtasunean jarraitzeko tresna eta bermea delako. Bizitzaz askatasunez gozatu ahal izateko, itxaropen, nahi, proiektu eta behar legitimoak arrazoiz hainbatean erdiesteko (bakoitzak bere egoeraren barruan).

Baina gauza bat argi dago: konstituzioak bere funtzioa osotasunean bete dezan, errespetatu behar dugu eta bere nortasunari eutsi behar diogu, hots, konstituzioak definitzen duena eta esan nahi duena; guztiontzako eta guztion artean eraikitako akordio kolektiboa, xede partekatua erdiesteko mamia.

Eta, azkenik, ezinbestekoa da elkarren artean onartzeko, errespetatzeko eta elkartzeko daukan osotasuna babestea, Espainiako herritar guztiok onartu genuena, subiranotasun nazionalaren jabe legitimoak garen aldetik.

Beraz, konstituzioa errespetatzen ez bada, ez da demokraziarik eta bizikidetasunik egongo. Ez da askatasunik egongo, inposizioa baizik. Ez da legerik egongo, bidegabekeria baizik. Konstituziotik kanpo Espainiak ez du bakerik eta askatasunik izango.

Eta konstituzioaren ondoan, Espainia.

Herritarrok ibilbide berri bati ekin genion duela ia mende erdi; elkarrekin egin genuen, demokratikoki, proiektu komun batean. Espainiaren ikuspegi partekatua onartu genuen, non guztiok gure nortasunean eta kulturen sentitzeko eta errespetatuak izateko eskubidea dugun, gure hizkuntzak, ohiturak eta erakundeak edozein direla ere.

Eta, egun, Espainia gizarte sendoa da, komunitate politikoa garen aldetik, gure mamia eraikitzen duten balioak askotan erakutsi dituen:

Zoritxarra dutenekin solidarioak izan gara;
Ereduzko jokabide zibikoa izan dugu COVID krisiari aurre egitean;
Terrorismoaren aurrean adorea, duintasuna eta printzipioak erakutsi ditugu;

Eta gure balio konstituzionalak adierazi (eta, batez ere) defendatu ditugu, zalantzan jarri direnean edo arriskupean zeudenean.

Hori guztia ere elkarrekin egin dugu, espainiar guztiok onartu genuen eremu konstituzionalaren arabera.

Izan ere, gure historia hurbileko arrakasta eta aurrerapenen behin betiko arrazoia gure herrialdearen batasuna izan da, gure balio demokratikoetan, kohesioan, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko lotura sendoetan eta horien arteko solidaritatean oinarrituta. Eta atzerrirako irekitasunean, batez ere Iberoamerikara eta Europara. Espainia, hain zuzen ere, EBko Batzordearen buru izan da azken sei hilabeteetan, Europaren batasuna indartuz.

Ez dut inolako zalantzarik: Espainiak gaur egun erronka handi eta konplexuei aurre egin behar die, eta horretarako oinarria batasuna izanen da.

Etorkizun horri heltzeko, Estatuko erakunde guztiek arduraz aritu behar dute, eta herritar guztien interes orokorrari eutsi, konstituzioa errespetatuz. Erakunde bakoitza, eta Erregea lehenengo, konstituzionalki dagokion lekuan egon behar da, emandako eginkizunak betetzeko eta konstituzioak ezartzen dituen betekizunak eta obligazioak betetzeko.

Halaber, gainerako erakundeak beren eskumenak erabiltzen dituztenean errespetatu behar ditugu, horiek elkarrekin indartzeko eta ospea sendotzeko. Eta, azkenik, gure herrialdearen ospe ona, duintasuna eta harekiko errespetua babestu behar dugu.

Espainiak, historian zehar, mendetan zehar, gizateriaren norakoan eragina izan du. Eta ezbeharrak, isiltasuna, isolamendua eta mina jasan ditu. Baina Espainiak egoera horiek beti gainditu ditu; eta lortu egin du bere bidea aukeratuz, indarrez, diren eta izan nahi duten herrien harrotasunez.

Daukagun herrialde zoragarriaz jabetu beharko genuke, guztion artean hobeto sentitu eta zain dezagun. Horrela, duela aste batzuk Gorteetan azaldu nuen eginbidea hobeto bete ahal izango dugu: belaunaldi gazteei Espainia bateratu eta elkartuaren ondarea bermatzea, elkar ulertu nahi duena, konbikzio demokratiko, zibiko eta moral indartsuak dituen; errespetu handiko Espainiaren ondarea, maitatua dena, non askatasunez eta segurtasunez bizitzen jarrai dezaketen, ingurumen egonkor eta fidagarrian.

Espainiak aurrera jarraituko du. Ausardiaz, itxaropenez, elkarrekin egingo dugu, gure egungo errealitate historikoaz jabetuz, gure nazioaren errealitateaz jabetuz. Bide horretan beti egongo da koroa; Erregea naizen aldetik nire eginbidea delako eta nire konbikzioa delako.

Mila esker zuen denboragatik gau honetan, eta erreginarekin, Leonor printzesarekin eta Sofia infantarekin batera Gabon gau zoriontsua opa dizuegu, eta oroipen berezia bidali nahi diegu une honetan, arduraz eta etengabe, guztion segurtasuna zaintzen eta zerbitzu publikoak babesten dituztenei.

Guztiei, Eguberri on, Feliz Navidad, Bon Nadal, Boas Festas. Gabon eta urte berri on.